

COLORBRAIN.

FUNTSEZKO ELKARTEAK.

Gure proiektua egiteko, bi atal dituela, bata doakoa eta bestea kostukoa, 5 psikologoren laguntza beharko dugu. Egokia iruditzen zaigu unibertsitatetik berriki atera diren psikologoak aukeratzea. Hau da, psikologo gisa inoiz lanik egin ez dutenak. Horrela, bultzada bat eman ahal izango diegu lan-mundura, jendea tratatzeko aukera emanez. Horrekin, hautagaiek etorkizunean laguntza handia emango dien esperientzia izango dute. Esan bezala, oraindik ere badago doako gune bat, eta atal horretan jarriko ditugu testuak, informazio-kartelak, tip-ak, bideoak, tresnak, etab. Lan hori egiteko, guk geuk egingo dugu, egoki deritzogun guztia eginez. Hori gutxi ez balitz, harreman publikoetako eta marketineko karrerako ikasleekin harremanetan jarriko gara proiektu handi hau eramaten laguntzeko. Gure eginkizun nagusia, hau aurrera eramateaz gain, terapiak taldean egiteaz pertsonalki arduratuko gara. Jakina, horren aurretik informatu beharko dugu, zerbitzu hobea eskaintzeko. Horretartako, gu gertu ditugun psikologoen laguntza izango dugu. Marketinaz gain, artean espezializatutako neska bat dugu, proiektuarekin harremana duten lanak salgai jartzeko, salmenten atalean ondo esan dugun bezala. Aipatu dugunez, kostuko atala kudeatzeko eta hitzorduak aurrera eraman al izateko bi neskekin lan egingo dugu haiek administrazioa ikasi bait dute.

Aurretik azaldutako guztia hobeto ulertzeko, gure enpresan lan egingo duten pertsonak hobeto ezagutzeko, ondoren jarriko dugun pdf-an informazioa bildu dugu modu argiago eta gertuago batean ezagutzeko

[Colorbrain langileak](#)

Hori gutxi balitz, beste dokumentu batean sortzaileen informazioa bildu dugu,, guri ere gertuagotik ezagutzeko

[Colorbrain sortzaileak](#)



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Egingo ditugun hitzaldiak nahiz eta hasieran online egingo ditugun, Iparralde gizarte etxeko gela bat edukiko dugu bertan jendea gerturatu dezan. Horretarako, Gasteizko udalarekin harremanetan jarriko gara. Lehen aipatu dugun moduan, hasieran online egingo ditugu baina ikusten badugu proiektua ondo doala eta jendeak eskatzen badu, fisikoki terapia egiteko aukera izango dugu. Horretaz gain, gelatxo hau edukitzea ondo etorriko zaigu sortzen ditugun produktuak bertan usteko biltegi moduan.